

Funtsezko elkarteak

Gure hornitzaile bakarra eta nagusia Kinova da, horregatik gure enpresarako oso garrantzitsua izango da aliantza hau. Enpresa honek teknologia munduarekin zerikusia duten produktuak eskaintzen ditu. Kinova Kanadan kokatuta dago baina Espainian ere baditu lankideak. Haien produktu gorena beso mekaniko bat da, gurpildun aukietan jartzeko. Bere beste produktuak ere oso antzekoak dira eta uste dugu interesgarria dela haiekin aliantza bat bermatzea, gure proiektuak kostu handiak baititu eta hainbeste diru lortzea zaila iruditzen baitzaigu.

Kinovarekin sinatutako kontratuan, haien eskuak guri bidaltzen dizkigute. Orduan, pertsonaren beharraren arabera modelo bat edo beste bidaliko digute guk Espainia mailan saldu ahal izateko. Adibidez, mugitzeko gaitasuna ez duen pertsona batek edo ibil ezin dezakeen pertsona batek ez du modelo berdina behar izango. Gero, lortutako irabaziak partekatu egingo ditugu.

Aliantza hau Kinovarentzat ere interesgarria izan daitekeela uste dugu. Alde batetik, haien enpresa gure herrialdera ekartzeko eta ezaguna egiteko baliogarria izan daiteke. Bestalde, diru sarrera handiagoak izateko aukera ematen die merkatua gehiago handitzean. Gainera, etorkizunari begira, zerbitzu publikoekin (ospitaleekin) harremanetan jarriko gara, produktua hedatu ahal izateko, eta, beharbada, mugikorreko *app* bat sortuko dugu.

Etorkizun batera begira, beste enpresa batzuekin ere aliantzak egitea pentsatuta dugu. Nahiz eta Kinova enpresa oso garatuta egon, ez ditugure nahi batzuk asetzen, irisaren bidezko kontrola edo ahots bidezko kontrola. Teknologia asko garatzen ari denez, enpresa berriak sortzea espero dugu, teknologia aurreratuagoekin.